

“BASURDE BAT HERRIAN”

2006. urteko ehiza denboraldiaren hasieran gertakari harrigarri bat gertatu zen Etxalarren. Afera horrela gertatu zen.

Egun horretan, denboraldiko egun guztietan bezala, herriko ehiztari gazteak herriko mendietatik ibilki ziren basurderen bat ehizatu nahian. Goizeko hamaikak inguruan zirela, Gorospil mendian ustekabeen zakurrek basurde haundi bat altxatu zuten. Basurdea ehiztari baten aldera joan zen, honek bizkarrean tiro egin eta lurrera erori zen. Ehiztaria, basurdea hila zegoelakoan, hurbiltzen hasi zen eta bat-batean, basurde altxatu egin zen eta mendi bera jo zuen bere burua salbatu nahian.

Basurdea Urritzokieta auzora ailegatu zenean, Saindunea baserria inguruan, bertako gizonari aurretik eramane zuen hau lurrera botata. Basurdeak bere bidea jarraitu zuen, errekan sartu zen eta herria alderako norabidea hartu zuen. Basurdeak errekan sartuta, zakurrek bere arrastoa galtzea nahi zuen.

Herrira ailegatzean ari zenean, basurdeak Landakoetxeako gizonaren aurka joan zen bera etxeko baratzean zegoenean. Liskar horretan basurdeak bere letain haundiak erabiliz marrako bat egin zion bere hanka batean. Honen ondotik basurdeak erreka erreka behitiko bidea hartu zuenean herriko bertze ehiztari batek, herriko depuradora parean, bi tiroz basurde hil egin zuen.

Azken urte hauetan horrelako gertari berezirik ez zen gertatua, nahiz eta herrian betidanik ehizatu den.